



# ARRAZTALO

2020ko memoria

2020ko urtarrilaren 4a

# AURKIBIDEA

<b>1</b>	<b>SARRERA</b>	<b>4</b>
<b>2</b>	<b>2020 URTEKO EKINTZEN AZALPENA</b>	<b>4</b>
<b>2.1</b>	<b>LAN ETA GIZARTE INTEGRAZIOA BARATZETAN</b>	<b>4</b>
2.1.1	HELBURU OROKORRAK	4
2.1.2	2020KO IBILBIDEA	4
2.1.3	2021EKO HELBURUAK	7
<b>2.2</b>	<b>ENPLEGU ZENTRO BEREZIA (EZB)</b>	<b>7</b>
2.2.1	HELBURU OROKORRAK	7
2.2.2	2020KO IBILBIDEA	7
2.2.3	2021ERAKO HELBURUAK	8
<b>2.3</b>	<b>BARATZAK ETA KONTSUMO TALDEA</b>	<b>8</b>
2.3.1	HELBURU OROKORRAK	8
2.3.2	2020KO IBILBIDEA	8
2.3.3	2021EKO HELBURUAK	9
<b>2.4</b>	<b>IKASTETXEAK ETA BARATZETARA BISITAK</b>	<b>10</b>
2.4.1	HELBURU OROKORRAK	10
2.4.2	2020KO IBILBIDEA	10
2.4.3	2021EKO HELBURUAK	10
<b>2.5</b>	<b>ALDURA ELKARTEAREKIN ELKARLANA</b>	<b>10</b>
2.5.1	HELBURU OROKORRAK	10
2.5.2	2020KO IBILBIDEA	11
2.5.3	2021EKO HELBURUAK	11
<b>3</b>	<b>DIRULAGUNTZAK</b>	<b>11</b>
<b>4</b>	<b>DIRU-KONTUAK</b>	<b>13</b>
<b>4.1</b>	<b>BALANTZEA</b>	<b>13</b>



# 1 SARRERA

Txosten honetan Arraztalo Elkarteak 2020an egin dituen ekintzen laburpena biltzen da. Urte hasierako helburuak, 2020an egindako lanak eta horien emaitzak zehazten dira. Gainera, diru-kontuen azalpen zehatza ematen da.

## 2 2020 URTEKO EKINTZEN AZALPENA

### 2.1 Lan eta gizarte integrazioa baratzetan

#### 2.1.1 Helburu orokorrak

- Helburu nagusia, Oiartzungo gaixo psikikoen lan eta gizarte integrazioa lortzea da.
- Lan integrazioa bultzatzeko nekazaritza ekologikoan lanpostuak sortzea.
- Gaixotasuna duten pertonekin, senideekin, gizarte zerbitzuekin eta osasun arretako profesionalekin euren egoera egonkortzen eta hobetzen laguntzea.
- Gaixotasun psikikoa duten pertsonen eta herritarren arteko harremanak bultzatzea eta sendotzea.

#### 2.1.2 2020ko ibilbidea

##### **Lanbideren Enplegu Plana**

2020 urtea hiru langile berriren kontratazioarekin hasi zen. 2019ko Lanbideren Enplegua Sustatzeko dirulaguntzei esker, desgaitasuna duten hiru pertsona kontratatu ziren. Pertsona horiek aurkitzea ez zen erraza izan, Gizarte Zerbitzuen, Arraztaloren eta Osasun Mentaleko sarearen artean ez baitago hau egiteko prozesu estandarrik martxan. Hori dela eta, hautaketa prozesua 2019ko abendura arte luzatu zen. Azkenean, Arraztalorekin aurretik lanean ibilitako pertsonak kontratatu ziren. 2020ko urtarriletik ekainera egon ziren lanean. Orokorrean, langile berriak ongi egokitu ziren lanera. Kontuan hartu behar da, hirutik bi aurretik Arraztalon lanean ibiliak zirela, ondorioz elkartearen dinamika ezaguna zuten. Hirugarrena ordea, Arraztalok kontratatu aurretik urte luzez lanean aritu zen, beraz laneko dinamika hartua zuen.

Kontratazio prozesuan izandako oztupoak ikusirik, 2020ko Enplegu Planaren kontratazioak martxan jartzeko, ekainean, lan poltsa jarri zen martxan hautagaiei buruzko informazioa biltzeko webgunearen bitartez. Helburua, Lanbidek dirulaguntza deialdia ateratzen zuenerako hautagai zerrenda bat edukitzea izan da.

# Arraztalok lan-poltsa osatzeko deialdia egiten du

© 2020/07/16    ARRAZTALO ELKARTEA    UTZI IRUZKINA

## Lan poltsan izen ematea

Arraztalo Elkarteak bere lan poltsa osatzen ari da, nekazaritzan, lanaldi murriztuz lanean aritzeko. Talde txikitik integraturik, hautagaiek Oiarzungo baratzetan lan egingo dute.

Bilatzen diren hautagaiek baldintza hauek bete behar dituzte derrigorrez:

- Desgaitasun onartua izatea, % 33 baino handiagoa, gaixotasun mental baten eraginez.
- Langabezian egotea.
- Oarsoaldean bizitzea.

Horrez gain, ondorengoak ere baloratuko dira:

- Nekazaritzan edo baserri lanetan esperientzia izatea.
- Beste edozein lan esperientzia.

Edozein zalantza izanez gero, jarri gurekin harremanetan [arraztalo@gmail.com](mailto:arraztalo@gmail.com) helbidean.

Arraztaloren inguruko informazioa: <https://arraztaloelkartea.wordpress.com/proiektuak/okobi/>

Zerrendan izena emateko, bete ondorengo datuak.

Ekainetik urrira, lan poltsa horretan 5 hautagaik eman dute izena. Guztietatik, bakarrak betetzen zituen kontratazioko baldintzak, besteak dagoeneko aurreko urtetan Lanbideren Enplegu Planean parte hartu baitzuten edo momentuan lanean baitzeuden. Bere funtzioa bete duen arren, hurrengo urterako lan poltsari zabalkunde handiagoa emateko neurriak hartuko dira. Gainerako hautagaiek, urte bukaeran, Oiarzungo Gizarte Zerbitzuen eta Errenteriako Osasun Mentaleko Zentroaren lanari esker aurkitu dira. Zerbitzu hauek egunero dute kontaktua osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonekin, beraz oso egokiak dira hautagaiek proposatzeko. Enplegu plan bat izanik, enplegu zerbitzuei (Oarsoaldeari edo Lanbideri) dagokie lan hau, baina argi dago desgaitasuna duten pertsonen esparruan, informazio baliagarriena osasun eta gizarte zerbitzuek dutela (batez ere osasun mentaleko arazoak dituztenen kasuan). Ondorioz, guztion elkarlana beharrezkoa da.

2021eko lehen sei hilabetetan arituko dira lanean kontratatutako langile berriak. Lantalde finkoko langileen eta Enplegu Planeko langileen artean lan dinamikak egingo dira astero. Lan dinamika horiek asteroko lanaren planifikazioa izango dute oinarri eta honako helburua dute:

- Langile finkoen eta aldi baterako 4 langile berrien arteko ezagutza edo komunikazio kanalak irekitzea.
- Langile berriak egiten den lanaren garrantziaz jabetzea.

- Arraztaloko langileen esperientzia balioan jartzea.
- Langile berrien iritziak eta proposamenak entzun eta egingarriak badira gauzatzea. Pertsona hauen ekintzailetasuna eta autoestimua indartu.
- Guztion artean giro ona sortzea, bakoitzaren balioak bultzatuz.

### **COVID19aren kudeaketa**

COVID19aren eraginez, 2020ko martxoa eta ekaina bitartean antolaketa berezia izan da baratzetan. Krisiaren hasieran, bi astez langileak etxean egon ziren egoeraren bilakaera ikusten zen bitartean. Monitoreak lanean jarraitu dute, baratzako mantenketan lanak egin eta uzta ez galtzeko. Martxoaren bukaera aldera, bakoitzaren egoera aztertu zen langilearekin eta senideekin, lanera buelta egiteko aukerak aztertzeko. Multzo txikitik, langileak baratzetan lanean hasi ziren, kontaktuak ahalik eta gehien murriztuz. Etxean adineko pertsonekin bizi diren langileak, banaka aritu dira lanean, zuzenean etxetik laneko arropa jantzita eraman dutelarik eta joan-etorriak oinez eginda. Prozesu guzti honetan, beharrezko babes neurriak hartu dira eta lan prebentzioko zerbitzuekin harremanetan egon gara. Maiatzean, urteroko azterketa medikuekin batera, langileei PCR frogak egin zaizkie.

Egoera honek estres maila handitu duen arren, lantaldeak ongi erantzun du.

### **Lantalde egonkorraren lana**

Arraztaloko langile finkoei dagokionean, egoera ezberdinak bizitu dira 2020an zehar. Elkarrekin 10 urte daramatza lanean eta bakoitzak bere ibilbidea egin du. Bi langileren kasuan, lanera guztiz egokituta daude eta ardura maila handiak hartzen dituzte egin beharreko atazetan. Beste biren kasuan berriz egoera ezberdinak daude:

- Baten kasuan, bere lanpostura eta Arraztaloren dinamikara ez dela egokitu esan daiteke. Azkeneko urtetan baja ugari hartu ditu, bai familian eta baita lan ingurunean bizitako egoeren ondorioz. Bere osasun egoera ez da egonkortu eta 2020an egoerak nabari okerrera egin duela antzeman da, Arraztalora lanera ez dela bueltatuko erabakitzeraino. Familia eta Arraztaloko arduradunen artean desadostasunak sortu dira egoera hau kudeatzeko erabakien inguruan. Senideen ustez Arraztaloko arduradunak dira osasun egoera okertzearen erantzule nagusiak eta ondorioz Oihartzungo Udalarari neurriak hartzeko eskatu diote. Arraztalok azkeneko urtetan zailtasun hauek kudeatzeko bi neurri nagusi hartu ditu:
  - o Langileekin dinamikak hobetzeko arduradun nagusiari laguntza psikologikoko zerbitzua jarri dio. Egunerokotasunean bizi dituen egoerak kudeatzeko formatu dadin.
  - o Baratzetako lanen kudeaketan laguntzeko beste pertsona bat kontratatu da. Azkeneko urtetan ikusi ahal izan da, desgaitasuna duten lau langileko

lantaldea kudeatu eta gainera baratzetako aktibitatea produktibo egitea lan karga handia dela pertsona bakarrarentzat. Honen eraginez, langileen osasun egoeran eragin zuzena izan duten tentsio uneak bizitu dira. Honi aurre egiteko eta lantaldearen ardura elkarbanatu ahal izateko, beste monitore bat kontratatu da.

Langile honi dagokionean, Arraztalok irtenbide ezberdinak aurkeztu dizkio senideei eta erantzun baten zain dago.

- Bigarren langilearen kasuan, erretiroko adinera iristen ari da. Langileak berak zailtasunak dituela adierazi du baratzetako lan fisikoa egiteko. Hau dela eta 2021eko erronka izango da langile honentzat eta bere senideentzat etorkizuneko lan ibilbidearen inguruko erabakiak hartzea.

Aurreko urtetan nabaritu den moduan, desgaitasuna duten langileekin aritzeko, lantalde guztiak ikuspegi sozialetik arituko den norbaiten laguntza behar du. Horretarako, Enplegu Zentro Berezia sortutakoan, laguntza hori emateko pertsona baten kontratazioa aurreikusten da.

### 2.1.3 2021eko helburuak

Lan integrazioaren esparruan honakoak izango dira 2021erako helburuak:

- Lan talde finkoari dagokionean, aurretik aipatu diren arazo eta erronkei irtenbidea aurkitzea.
- Aldi baterako langileen lan integrazioa martxan jartzea. Osasun egoera egonkortzen lagundu eta hurrengo lan aukeretarako prestatzea.

## 2.2 Enplegu Zentro Berezia (EZB)

### 2.2.1 Helburu orokorrak

- Arraztaloren lan integrazio proiektua egonkortzeko Enplegu Zentro Berezia sortzea.
- Enplegu Zentro Bereziaren bitartez beste erakundeak inplikatzea.

### 2.2.2 2020ko ibilbidea

2019 bukaeran, Enplegu Zentro Berezien legedia argitaratu zuen Eusko Jaurlaritzak. Legedi horren azterketa eginez, Arraztalo Elkarteak bi lan ildo nagusi eduki ditu:

- Esparru juridikoa: inguruko erakundeekin batera, Enplegu Zentro Bereziaren helburuak landu eta partaide bakoitzaren rolak definitzen jardun da. Enplegu Zentro Bereziaren izaera juridikoa definitu.

- Esparru ekonomikoa: Legediaren arabera EZBak jasoko lituzkeen dirulaguntzen analisia eta gastuen azterketa egin da.

COVID19agatik alarma egoera ezarri zen astean zegoen aurreikusia EZBaren proiektua Oarsoaldeako Administrazio Kontseiluan aurkeztea. Bertan, eskualdeko erakundeak daude. Beraien parte hartzea bilatu nahi izan da hasieratik, elkarlanean sortutako EZB bat lortu nahi delako, gaixotasun mentala duten pertsonen lan integrazioa hobetzeko. COVID19aren krisiaren ondorioz ez dira erakundeekin hartu emanak abiarazi berriz.

Dena den, Arraztalok aipatutako lan ildoekin martxan jarraitzen du. Esparru juridikoan aukerak zein diren argi dago, orain erakundeekin batera erabakiak hartzea falta da. Esparru ekonomikoan, bideragarritasun plana egiteko pausoak ematen ari gara, aholkulari baten laguntzaz.

### 2.2.3 2021erako helburuak

- Enplegu Zentro Bereziak partaide diren erakundeentzako zein helburu bete behar dituen zehaztea.
- Inguruko erakundeekin Enplegu Zentro Berezia lortzeko proposamena lantzea.
- Enplegu Zentro Bereziaren forma juridikoa zein izango den erabakitzea
- Plan ekonomiko finantzieroa egitea.
- Enplegu Zentro Berezia martxan jartzea.

## 2.3 Baratzak eta kontsumo taldea

### 2.3.1 Helburu orokorrak

- Bertakoak, ekologikoak eta sasoiari-sasoikoak diren barazkiak eta sagardoa merkaturatzea.
- Gaixotasun psikiko duten pertsonen gizarte integrazioan lagunduko duen herritar talde baten konprometua lortzea.
- Inguruko ekoizleak kontsumo taldera erakartzea.

### 2.3.2 2020ko ibilbidea

#### **Baratzak**

2020an Arraztalok lau baratza (19000 m<sup>2</sup>) eta bi sagasti (12000 m<sup>2</sup>) kudeatzen jarraitu du. 2020an baratzatan hobekuntzak egin dira. Adibidez, Makutsoko lursailean, txabola inguruan, lurzorua hobetu da eguneroko lana errazteko.



Ziurtagiri ekologikoa lortu zen 2016an hiru baratzatarako eta hauek, etengabeko azterketa prozesuan daude, ekoizpena ekologikoa dela ziurtatzeko. Makutsoko lursailak ere zigilu ekologikoa lortu du, beraz Arraztaloren ekoizpena erabat ekologikoa dela esan daiteke. Horri esker, 2020ko sagar uztaren zati bat sagardotegiei saltzea lortu da, sagar ekologikoen ekoizpena murrizta baita inguruan.

Bestalde, ekoizpenean gastuak jaitsi eta lana errazteko neurriak hartu dira. Batetik, ongarria aldatu da. Lehen ximaurra erabiltzen zen eta orain granulatu ekologikoa erabiltzen da. Honek abantaila ezberdinak ditu: banatzeko errazagoa da, garraioa errazagoa da eta merkeagoa. Bestetik, hazi eta landareak erosteko hornitzailea aldatu da. Inguruko hornitzaileekin arazoak izan dira, ekoizpena txikia dutelako eskaerarekin alderatuz. Ondorioz, askotan landareak falta izan dira eta prezioak garestiak dira. Horri aurre egiteko, Nafarroa hegoaldean egin dira landare eta hazi erosketak nagusienak. Garraioa garestitzen den arren, plangintza eginez eta bidaia bakoitza aprobeztatuz, orokorrean landarean merkeagoak dira.

### **Kontsumo taldea**

Kontsumo taldeari dagokionean, partaide kopurua mantendu da. Gaur egun 30 familia daude bertan. Irailean, kurtso hasierarekin batera, kontsumo taldeko partaide gehiago bilatzeko kanpaina jarri zen martxan. Etxez etxe informazioa banatu zen. Horri esker, kontsumo taldean hiru partaide berri sartu dira. Bajak ere izan direnez, kanpainaren laguntzaz, kontsumo taldeko partaide kopurua mantendu da.

Abuztuan, langileek txandaka oporrak egiten dituztenez, Ergoiengo baratzaren kudeaketa kontsumo taldeko kideen esku geratzen da. COVID19aren eraginez, aurtengo abuztuko auzolanean, inoiz baino jende gehiagok parte hartu du (astean behin 20 bat pertsonak). Honi esker baratzaren mantenu lanak egiteaz gain, barazkiak ere landatu dira, neguko uzta nabarmen hobetu delarik.

Azkenik, aipatu behar da 2020an beste ekoizle bat sartu dela kontsumo taldean bere produktuak merkaturatzen, ogia hain zuzen ere. Guztira hiru ekoizlek kontsumo taldearen dinamika baliatzen dute bere produktuak merkaturatzeko.

### **Beste bezeroak**

Arraztaloren bezero nagusiak kontsumo taldeko kideak diren arren, azkeneko urtetan merkataritza txikian eta herriko ikastetxeen jantokietan hornitzaile izateko ahalegina egin da. Lan horri esker, gaur egun Labore eta Hautzaro Ikastolako jantokiko hornitzaileak gara.

## **2.3.3 2021eko helburuak**

2021erako honako helburuak zehaztu dira:

- Kontsumo taldea sendotzen jarraitzea. Komunikazio kanpainak egiten jarraitu, kide berriak erakartzeko.

- Labore denda eta Ikastolako sukaldea hornitzeko barazkien ekoizpena ugaritzea.
- Inguruko denda txikiak hornitzen jarraitzea. Orain arte modu puntualean egiten da. Aurrera begira denda txikiak iraunkortasunez hornitzea izango litzateke helburua.
- Intxaurrondon ireki berri duten Labore antzeko dendarekin ere harremanetan jarriak gara. Bertako hornitzaile izateko pausoak eman.

## 2.4 Ikastetxeak eta baratzetara bisitak

### 2.4.1 Helburu orokorrak

- Herriko haurren sentsibilizazioa lortzea, buruko gaixotasunen eta buruko osasunari dagokionean.
- Arraztalo Elkartearen ekintzen berri ematea, baratzetan egiten den lana laburbilduz.
- Herriko haurrak nekazaritzara hurbiltzea.

### 2.4.2 2020ko ibilbidea

COVID19a dela eta, 2020an bisitak ez dira aurreikusi bezala egin baratzatan. Azaroan Hautzaro Ikastolako haurrek bisita bat egin zuten. Dena den, 2020-2021 ikasturterako, Hautzaro Ikastola baratza proiektu bat prestatzen ari da. Baratza, tresna pedagogiko gisa erabili nahi da, COVID19ak jarriko dituen oztopoak gainditzeko. Baratza hori martxan jartzeko, Erika eta Arraztalori laguntza eskatu digute.

### 2.4.3 2021eko helburuak

2021erako helburuak honakoak dira:

- Hautzaro Ikastolak martxan jarri nahi duen proiektuan laguntzea.
- Elizaldeko eta Hautzaroko ikasleak baratzetara joaten direnerako, irakasleekin bisitak landu Arraztalo elkarteak burutzen duen lana azalduz. Horretarako irakasleei Arraztaloko langileek egiten duten lana azaldu behar zaie. Langilearen egunerokotasuna, langilearen prozesua, dituzten zailtasunak, izaten dituzten aurrerapenak eta abar.

## 2.5 Aldura Elkartearekin elkarlana

### 2.5.1 Helburu orokorrak

- Eskualdean, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen aldeko mugimendua bultzatzea.

- Eskualdeko mailako egitasmoak gauzatzea, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen alde.

### 2.5.2 2020ko ibilbidea

2020 urtean, Aldurarekin elkarlanean bi lan ildo nagusi izan dira:

- Osasun mentaleko mahaiaren proiektua. 2018an aurkeztu zen eskualdeko diagnostikoan, osasun mentalen bidezko mahai bat osatzeko proposamena egin zen. Mahai hauek osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eta hauen arretan parte hartzen dutenek osatzen dituzte. Kataluniako ereduari jarraituz, horrelako mahai bat eskualdean martxan jartzeko proiektua egiteko aurrekontua eskatu zaio SIIS ikerketa zentroari.
- Errenteriako Osasun Mentaleko Zentroan baratza. Aldura, Osasun Mentaleko Zentroa eta Errenteriako Udala, Beraunen baratza bat jartzeko proiektua lantzen ari dira. Arraztalok behar den laguntza teknikoa emango du.

### 2.5.3 2021eko helburuak

2021ean, aurretik azaldutako egitasmoekin Arraztalok Aldurari behar duen laguntza emango dio.

## 3 DIRULAGUNTZAK

Jarraian, Arraztalok aurten eskatu edo lortu dituen dirulaguntzen laburpena ikus daiteke:

Diru-laguntza	Kopurua	Helburua	Onartua	Oharra
Oiartzungo Udala	53.000 €	Lan integrazioa baratzetan	Bai	Hitzarmen bidezko dirulaguntza.
Kutxa Fundazioa	18.200 €	Lan integrazio programan laguntzeko	Bai	% 25a kobratzeke dago.
Eusko Jauriaritza	-	Zigilu Ekologikoaren programan parte hartzeagatik	Ez	5 urtez ematen dituzte eta epe hori pasa da.
Foru Aldundia	-	Ekoizpen ekologikoan egoteagatik laguntza	Ebazteke	

Foru Aldundia	7.500 €	Baratzetako integrazio programari laguntzeko	Bai	
Errenteriako Udala/Lanbide	16.980 €	Enplegu Plana 2019	Bai	Desgaitasuna duten 3 langile
Errenteriako Udala/Lanbide	6.000 €	Enplegu Plana 2019	Bai	Monitore bat
Caixabank	2.000 €	Baratzetako materiala erosteko dirulaguntza	Bai	

## 4 DIRU-KONTUAK

### 4.1 Balantzea

2020 SARRERAK	
<b>Salmentak</b>	
Kontsumo Taldea	18.379,50 €
Merkataritza	4.222,10 €
<b>Dirulaguntzak</b>	
Udala	53.000,00 €
Foru Aldundia	7.500,00 €
Eusko Jaurlaritza	1.578,10 €
Bankuak	15.650,00 €
<b>Maileguak</b>	
Maileguak	2.000,00 €
<b>Beste</b>	
Beste	25.303,43 €
<b>Guztira</b>	<b>127.633,13 €</b>

2020 GASTUAK	
<b>Giza Baliabideak</b>	
Ordainduak	81.452,17 €
Gizarte Segurantza	30.174,57 €
Joan-etorriak	106,23 €
<b>Kanpoko zerbitzuak</b>	
Aseguruak	1.804,80 €
Zerbitzu profesionalak	2.521,86 €
<b>Hornidurak</b>	
Baratza materialak	4.884,11 €
Landare eta haziak	2.178,38 €
Erregaiak	2.535,08 €
Argindarra	68,48
Ura	230,38 €
Hondakinak	166,80 €
<b>Amortizazioa, zergak eta finantza gastuak</b>	
Zergak	4.671,44 €
Finantza gastuak	62,74 €
<b>Beste</b>	
Beste gastuak	908,70 €
<b>Guztira</b>	<b>131.765,74 €</b>

BALANTZEA*	
2020-01-01	12.539,12 €
Balantzea	-4.132,61 €
2020-12-31	8.406,51 €

\* Balantze honetan kontuan hartu behar da Kutxa Fundazioko dirulaguntzaren %25a kobratzeke dagoela, guztira 4550 €.